

Derioko Udalaren 2023ko abuztuaren 22ko 251/2023 dekretuaren laburpena. Dekretu horren bidez, Derioko udalerrian erroldatuta dauden langabeak kontratatzeko laguntzak emateko deialdia onartu ziren 2023rako.

BDNS (Identif.):

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da, zeinaren testu osoa Diru-laguntzen Datu-base Nazionalen kontsulta baitaiteke (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>):

Lehenengoa. Onuradunak:

Deialdi honetan ezarritako diru-laguntzen onuradun izan daitezke, beren forma juridikoa edozein dela ere, lan-kontratuak egiten dituzten enpresak, profesionalak edo entitateak, deialdi honetan ezarritako baldintzetan, eta honako betekizun eta baldintza hauek betetzen badituzte:

-Egoitza soziala eta fiskala Bizkaian edo bertan kokatutako lantokia izatea.

-Enpresako Langileen Legezko Ordezkaritzari (LLOri) deialdi honen babesean kontratatzeko asmoa jakinarazi izana, kontratu mota, kontratazio-aldia eta bete beharreko postua adierazita. Enpresak adierazi beharko du eskabidean LLOrik ez badu.

-Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean edukitzea.

-Diru-laguntzen arloko itzulketa-betebeharrak ordainduta edukitzea.

-Diru-laguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen administratibo edo penalik ez izatea, eta horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik ez izatea, sexu-diskriminazioagatik gertatutakoak barne, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarriko martxoaren 30eko 3/2007 Lege Organikoaren arabera.

-Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 eta 13.3 artikuluetan aurreikusitako gainerako egoeretako batean ere ez egotea.

Honako hauek ezin izango dira diru-laguntza hauen onuradun izan:

— Administrazio Publikoak, sozietate publikoak eta horietako edozein lotutako edo haren mendeko erakundeak.

— Enplegu-zentro bereziak.

— Aldi baterako laneko enpresak, beste enpresa bati aldi baterako lagatzeko langileak kontratatzen dituztenean.

Baldintza horiek betetzen jarraitu beharko da pertsona edo erakunde onuradunek laguntza hauen programan parte hartzen duten bitartean.

Bigarrena. Helburua:

Oinarri eta deialdi hauen helburua da Derioko udalerrian erroldatuta dauden eta Lanbiden, Euskal Enplegu Zerbitzuan, enplegu-eskatzaile gisa izena emanda dauden langabetuen kontratazioa sustatzeko eta errazteko diru-laguntzak norgehiagoka-erregimenean emateko baldintzak arautzea.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak:

https://www.bizkaia.eus/lehendakaritza/Bao_bob/2022/09/02/II-3955_eus.pdf

Laugarrena. Zenbatekoa:

Laguntza hauentzako gehieneko kreditu erabilgarria 12.000 eurokoa da, 7 diru-laguntza emateko, bakoitza 2.000 eurokoa.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea:

2023ko irailaren 12tik 2023ko abenduaren 1era arte.

Derio, 2023ko abuztuaren 22a

Alkatea,

Esther Apraiz